

2020ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak
.....

Euskal Ekonomia Soziala
sendotzeko aukeraestrategikoa,
susperraldi ekonomiko
eta sozialaren alde



EGES, Euskal Gizarte Ekonomia Sarearen helburua Ekonomia Sozialaren praktika eta balioak sustatu eta garatzeko lankidetzaren eremu bat sortzea da. Horrela, enplegu iraunkorra eta kalitatezkoa sortuko litzateke, eta lurraldearen garapen eta kohesio sozialari lagundu.

Ekonomia Sozialak pertsonak lehenesten ditu kapitalaren gainetik, enpresa praktika demokratikoak garatzen ditu, tokiko garapen iraunkorrarekiko konpromisoa dauka eta kohesio sozialari laguntzen dio, erantzukizun eta elkartasun irizpideak aplikatuz. Ekonomia Sozialak enpresa-eredu zehatz bat garatzen du, negozio aukerak eskaintzeaz gain, gizartearen beharrianak estaltzeko.

EGES Sarea Ekonomia sozialaren arloko bost erakunde garrantzitsuk osatzen dute:

- ASLE, Euskadiko Lan Sozietateen Taldea.
- EHLABE, Gizarte Ekimeneko Enplegu Bereziko Euskadiko Erakundearen Elkarte.
- GIZATEA, Euskadiko Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresen Elkarte.
- KONFEKOOP, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.
- REAS Euskadi, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea.

Agrupan en su conjunto a 77.602 personas trabajadoras en un total de 1.901 empresas, que suman en conjunto una facturación de 11.751.709.558 de euros. Cabe destacar la participación de las personas, tanto por la implicación de las empleadas, como por aquellas socias no trabajadoras que ascienden más de 1.000.000 personas entre voluntarias, colaboradoras y socias de proyectos asociativos y cooperativos en ámbitos como el consumo, la enseñanza o la agricultura.

Datu horiek erakusten digute Ekonomia Sozialak garrantzia handia daukala ekonomian, orokorrean, eta euskal gizartearen sustatu beharreko arloa dela. Aipatu behar da, gainera, azken hamarkadetan gorantz egin duen jardueraren dela. Atzeraldi eta krisi sasoiaren ere, euskal ekonomia sozialak eusteko eta hazteko gaitasuna erakutsi du, kalitatezko enplegu iraunkorrak mantenduz.

Covid-19aren krisian ere argi geratu da hori. Ekonomia Sozialaren arloko enpresek erakutsi dute zailtasunei aurre egiteko gaitasun handia dutela egoera berrira egokitu dira produkzio egiturak eta enpleguak mantentzeko, eta oinarritzko beharrianen zerbitzura jarri dira. Beraz, badakigu posible dela errentagarritasun ekonomikoa mantenduz pertsonak erdigunean jartzea.

Ikuspuntu horretatik, gure gizarteak behar duen susperraldi sozioekonomikoa sustatzeko, uztailaren 12an Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango ditugula baliatuz, EGES sareak 10 proposamen egin nahi dizkie alderdi politikoei, gizarte eta ekonomia erakundeei eta herritar guztiei.

1

Euskal Ekonomia sozialak egiteko garrantzitsu bat dauka, bereziki egungo egoeran, Eusko Jaurlaritzaren politiken multzoan. **Sektore horren aldeko apustu estrategikoa egin behar dela** uste dugu, sustapen eta garapen neurriak areagotuz eta hazkunderako planak bultzatuz.

2

Ekonomia Sozialaren arloko enpresen sorkuntza sustatu behar da ekintzailatza plan espezifikoek bidez (inkubazioa, sorkuntza, garapena eta enpresa horien sendotzea), eta Ekonomia Sozialaren arloko sozietate egiturak lortzeko eraldaketak eginez.

3

Finantzaketa tresnak eta bestelako baliabideak behar dira, Ekonomia Sozialeko enpresen garapen eta hazkunderako.

4

Ekonomia Sozialeko enpresek kontratazio publikorako aukera izan beharko lukete, klausula sozial batzuk ezarri edo kontratazio prozeduretan merkatu erreserbak eginez, arlo horretan indarrean dagoen legeriaren arabera.

5

Euskal Ekonomia Sozialeko enpresa, sektore eta erakundeen arteko lankidetzak sustatzera eta beren ordezkaritza egiturak sendotzera bideratutako baliabideak ugaritu behar direla uste dugu.

6

Hezkuntza etapa guztietan Ekonomia Sozialaren printzipio, balio eta praktikak txertatzea proposatzen dugu, batez ere, batxilergoan, prestakuntza zikloetan eta unibertsitatean.

7

Baliabide gehiago bideratu behar dira **Ekonomia Sozialaren arloko prestakuntza eta ikerketa baliabideetara**, berrikuntzara, gizon eta emakumeen arteko berdintasunera, ingurumen iraunkortasun eta iraunkortasun ekonomikora, partaidetzaren kultura sustatzera.

8

Uste dugu **Ekonomia Sozialak leku handiagoa eduki beharko lukeela Eusko Jaurlaritzaren egitura instituzionalaren eta antolaketaren barruan**, errealitatearen eta potentzialaren arabera. Sailburuordetzaren maila eduki beharko luke, gutxienez. Ildo horretatik, sustapen-egiturari baliabide gehiago eman behar zaizkio.

9

Ekonomia Sozialaren arloko Euskal Estrategia landu behar dugu, sektorea politika ekonomikoen lehentasunen artean egoteko, Eusko Jaurlaritzaren sail desberdinekiko zeharkako izaerarekin. Estrategia hori instituzioen artekoa izan behar da, eta Euskal Ekonomia Sozialaren erakunde adierazgarrienek garapenean parte hartu beharko lukete.

10

Ekonomia Sozialaren balioen arabera, berdintasun, parte-hartze, inklusio eta ingurumen-iraunkortasun arloko irizpideetan oinarritutako eredu bat indartzea.